

Bideoaren

zirrikitutik begira

Ekainaren amaieran Gazte-bideo saria irabazi zuten filmak eskainiko dituzte Gasteizko jaialdi bideografikoan.

Ekainaren 29 eta uztailaren 3a bitartean izango da hori, eta bertan hainbat bideo lanen aurkezpena egingo dute. Aurtengo urtea oso emankorra izan da, euskal herritarrentzat batez ere, irabazle asko eta asko bertakoak baitira. Guztira 42 zinta aurkeztu dituzte jaialdian, eta 13 sari banatu. Horietatik zazpi euskal herritarrek lortu zituzten.

ane sarasketa

Horietako film batzuen berri jaso dugu ondoren, Gasteizko jaialdi bideografikoan ikusi ahal izango denaren aurrerapen txiki gisa. Bideoaren zirrikitutik betiere ikuspegi berezia omen dago, eta hori ongi aprobetxatzen jakin dute zinten egileetako batzuek.

Leihotik begira

David Gonzalez Algortakoa da eta 19 urte ditu. Gaztea da, baina dagoneko bere etorkizuna bideratu duten bi sari jaso ditu: Gaztebideo film onenari saria, eta muntaia onenari saria. *La ventana* du izena filmak (Leihoa) eta irrealtasunak eta erreala denak bat egiten dutela bertan kontatu dio David Gonzalezek barkatu ama-ri.

Zuzendariak berak hala kontatu du filmaren haria: «Intimismoa eta intrigaren arteko puntua du. Hogeitaz mutil bat bakarrik bizi da bere etxean. Ez du inolako lanik, eta orduak igarotzeko egunero ikusten duen emakume bat grabatzen hasten da bideo kamera batez. Emakumeak egunero egiten du ibilbide berbera, eta mutilaren lehio azpitik igarotzen da. Dena dela, nahikoa ez eta emakumea jarraitzeari ekiten dio mutilak. Istorioa korapilatzen hasiko da. Baina ez dut amaiera kontatutako», esan du Davidek. Ez du merezi gainera amaiera jakiterik, bi aste barru Gasteizko jaialdi bideografikoan eskainiko baitute.

Serioski egiten duen lehenengo lana dela aitortu du algortarrak. «Orain hiruzpalau urte hasi nintzen, eta egia badiotsuet asko borrokatu behar izan nintzen aitarekin, hark bideo kamera zaharra niri uzteko. Baina *La ventana* da egin dudana lanik serioena», azaldu du. Fruituak eman dizkio lanak gainera, eta orain aurrera begira jarriko dela aitortu du. «Orain aktore kopurua murriztu egin dut, eta egiten ditudan lanak bizpahiru lagunekin egiten di-

tut». Hala da. La ventana egiteko beste hiru lagunek lagundu diote: Miriam Martinek, Roger Ociok eta Alberto Herrerok, eskolako lagunak guztiak ere.

Psikologia ikasketak hasi zituen iaz, baina ez zuten betetzen eta utzi egin ditu. «Arte ederrak hasiko ditut dato-



Iñaki Alonso eta Hugo Huidobro

joseba olalde

rreren urtean. Badirudi nire ibilbidea zehazten hasi naizela», dio barrez.

Autodidakta

Bere kabuz ikasten du, orain arte behintzat: «Autodidakta naiz guztiz». Ez zioten kamerarik erregalatu gaztea zenean, eta beraz, ez da txikitako zale-tasun baten ondorioa bere afizioa hori. «Saskibaloiari jotzen nuen, baina utzi egin behar izan nuen. Denbora larregi nuen eta zerbait egiten hasi beharra. Hala ekin nion grabatzeari, baina ez dakit noiz, non eta zergatik», esan du.

Gogor borrokatu ostean aitaren kamera lortu zuen, baina gerora Hi-8 bat

erosi nuen eta horrekin dabil lanean. Ikasteko giltza? «Filmak eta aldizkari teknikoak, ez txutxumutxuak kontatzen dituzten horiek. Zuzendari bat ezagutzeak beste bat ezagutzea dakar. Bati buruz irakurtzeak beste bat bilatzea eskatuko dizu».

Esan legez, zineman ere lan egin nahiko luke, eta bideoa hasteko modua dela uste du. Gero bideo profesionalera igaro eta ondoren zinemara. Hala balitz, zuzendari ospetsua egiten denean elkar-riketa bat eskainiko digula zin egin du Davidek. Zuek testigu!

Umorez jantzita

Gidoi onena eta umore gehien duen filma izan da Iñaki Alonso eta Hugo Huidobro gasteiztarrek aurkeztutakoa: *Arriba las manos, esto es un atraco* filma (Gora eskuak hau lapurreta bat da). Gasteiztar-rrak dira bi zuzendariak eta 25 urte inguru dituzte. Umorea falta zela Gaztebideo lehiaketan eta aurreko umorearen aldeko apustua egin dute. «Akaso horregatik irabazi dugu. Aurkeztu diren filmen artean, gehienak beldurrezkoak edo serioak ziren, eta guk beselakoa egitea pentsatu genuen», esan du Iñakik.

Beraien filma ere Gasteizko jaialdi bideografikoan aurkeztuko dute, eta ez dute horregatik filma goitik behera

kontatu. Bai ordea ardatza: «Diru banku bat eta odol banku bat konparatzen ditugu filman. Pertsonaia nagusiak nahastu egiten ditu bi kutxazain, eta halako batean dirua ateratzen beharrean odola ateratzen diotela konturatzen da», laburtu du zuzendarietako batek.

«Zinema? Ez dut uste hortik bizitzeko aukerarik dugunik, gainera ez dakit nahiko nukeen. Zaletasun hori sakondu nahiko nuke, baina printzipioz bideoa, batez ere film laburrak direnean», esan du.



David Gonzalez zuzendaria eta Roger Ocio antzezlea (atzean)

Gaztetandikan aktore

Beste izar bat: Leticia San Pedro. Biasterikoa da eta 14 urte ditu, eta berari eman diote aktore onenaren saria. Vidal Olabarriak eta Jesus Garciak zuzendutako lana *El pintor de sueños* (Ametsen marrazkilaria) izeneko filman parte hartu du. Fabulista zinemaklubeko kideak dira bi zuzendariak, eta dagoeneko esperientzia zabala dute bideoaren munduan. Ali-ciak ere hainbat lan egin ditu, eta gustuko du antzezte.

Bideoarenganako zaletasun itsua dute biasteriar horiek. Dena den, ez dute etorkizun profesionalen apusturik egingo. «Ez dut uste profesional mailan arituko garenik bideoekin. Diru eta denbora eskatzen du horrek. Egun edozeinen esku dago bideo lan bat egitea, eta hori da bere xarma».



Beste sa-
■ Bigarren
Miguel San-
JASP
■ Geroztik
Sonata film
(Getxo)
■ Soinu b-
orjinala
Operazio-
filmaren
■ Belore-
dituen
La brujia
(Irun)